

DBH
(Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza)

2023-2024 ikasturtea

Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen familiei:

Ikasturtea aurrera doa eta, honez gero, Lehen Hezkuntzako 6. mailan seme-alabarik duzuenok seguru behin baino gehiagotan hitz egin duzuela hurrengo urteari buruz. Eta bereziki aurten, izan ere, ikasketa-etapa bat bukatzen ari da eta honekin lotuta sortzen diren galderak eta zalantzak ugaritu egiten direlako.

Honi guztiari aurre egiteko, HERRIKIDEn hainbat orientazio-ekintza egiten dira eta hemen daukazuen informazio-liburuxka horietako baliabide bat besterik ez da.

Liburuxka hau honela dago antolatuta:

- I. DBHko etaparen aurkezpen orokorra
- II. Eskaintza HERRIKIDEn
- III. Erreferentziarako pertsonak

Lasaitasun osoz hau dena irakurri eta gai honi buruz sor daitekeen edozein zalantza argitzeko, jo ezazue Lehen Hezkuntzako 6. mailako dagokion tutorearengana, DBHko koordinatzailearengana edota zuzendariarengana.

Azkenik, HERRIKIDE proiektuari azaltzen diozuen atxikimendua eskertu nahi dizuegu.

Eskerrik asko zuen arretagatik eta agur bero bat.

Zuzendaritza

I. DBHko etaparen aurkezpen orokorra

Lehen Hezkuntzako ikasketak bukatu ondoren, derrigorrezko hezkuntzan jarraitu behar dugu DBH (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) etapa honekin.

DBH gainditu ondoren lortzen den Tituluak mota desberdinetako ikasketak jarraitzeko aukera emango dizu, batez ere, Batxilergoa eta Erdi Mailako Zikloak (Lanbide Heziketa).

Etaparen honen egitura orokorra:

- **Lau mailatan** dago antolatuta.
- Ikasleek bi motatako **irakasgaiak** ikasiko dituzte:
 - √ **Derrigorrezko irakasgaiak:** DBHko ikasle guztiek ikasiko dituztenak. Hauek dira:

<ul style="list-style-type: none"> - Euskara eta literatura - Gaztelania eta literatura - Ingelesa - Matematika - Geografia eta Historia - Gorputz Hezkuntza - Erlijioa - Tutoretza 	<ul style="list-style-type: none"> - Natur zientziak (1-2) - Biologia eta Geologia (3) - Fisika eta Kimika (3) - Teknologia (2-3) - Plastikako, Ikusizko eta Ikus-entzunezko Hezkuntza (1-3) - Musika (1-2)
-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------
 - √ **Aukeratzeko irakasgaiak:** aurreneko hiru mailatan bi orduko aukerako irakasgai bat ikasi behar da eta 4. mailan, bi orduko irakasgai bat eta hiru orduko hiru irakasgai aukeratu behar dira.
- Irakasgaiak ebaluatzerakoan funtsezko konpetentziak aintzat hartuko dira:
 1. Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.
 2. Konpetentzia eleaniztuna.
 3. Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniarietarako konpetentzia.
 4. Konpetentzia digitala.
 5. Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa.
 6. Herritartasunerako konpetentzia.
 7. Ekintzailtza-konpetentzia.
 8. Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia.
- Maila bakoitzean hiru **ebaluaketaz** gain, bukaerako azterketa finalak egongo dira ebaluazioren bat suspenditu duenarentzat.

- DBHko ordutegia:
 - √ Goizez **egunero 8:00-13:15** (DBHko 1. eta 2.ekoak astelehenetan 9:00tan sartzen dira)
 - √ Arratsaldez **astelehen, astearte eta ostegunetan 15:00-17:00**
- Beraz, **astean 31 klase-ordu dira** (DBHko 1. eta 2. ean 30 ordu)
- Etapa osoan **kurtsoz pasatzeko** ekaineko emaitzetan dena gaindituta edo gehienez ez-gainditutako bi irakasgai izan daitezke. Gehienez bi kurtso errepika daitezke derrigorrezko etapa osoan eta inoiz ez maila bera bi aldiz.
- DBHko 4. maila gaindituz gero, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako **graduatu-titulua** lortuko da.

II. Eskaintza HERRIKIDEn

1. Aukeratzeko irakasgaiak

1. eta 2. mailako aukerakoak

Ondoko bien artean **bat** aukeratu behar du:

◆ A aukera:

Frantsesa (I eta II)

◆ B aukera:

- Teknologiako eta digitalizazioko hastapenak eta Osasun fisiko eta emozionala Ikaskuntza eta Zerbitzu proiektuen bidez (1)
- Pentsamendu kritiko eta autonomia eta Osasun fisiko eta emozionala Ikaskuntza eta Zerbitzu proiektuen bidez (2)

Oharra: ziklo osoan aukera bera mantendu behar da

3. mailako aukerakoak

Ondoko hauen artean **bat** aukeratu behar du:

- ◆ Frantsesa III
- ◆ Osasun fisikoa eta emozionala eta Kultura zientifikoa Proiektuen bidez
- ◆ Kultura klasikoa eta pentsamendu kritikoa eta autonomia Proiektuen bidez

4. mailako aukerakoak

Multzo bakoitzetik aukera **bat** hartu behar du:

A multzoa: (astean 3 ordu gai bakoitzak)

- ◆ Fisika eta Kimika + Biologia eta geologia
- ◆ Fisika eta Kimika + Ekonomia eta ekintzailtza
- ◆ Fisika eta Kimika + Teknologia
- ◆ Latina + Ekonomia eta ekintzailtza
- ◆ Latina + Teknologia

B multzoa: (astean 3 ordu)

- ◆ Frantsesa IV
- ◆ Musika
- ◆ Digitalizazioa
- ◆ Prestakuntza eta orientazio pertsonala eta profesionala
- ◆ Adierazpen artistikoa

C multzoa: (astean 2 ordu)

- ◆ Arte eszenikoak
- ◆ Matematika tailerra
- ◆ Lanbide jarduerari aplikatutako zientziak
- ◆ Kultura zientifikoa

2. Erabiltzen den metodologia

- **Diziplinarteko proiektuak:** **BIZI** dugu 1. eta 2. mailetan. Irakasgai desberdinen edukiak integratu eta ikasi, funtsezko konpetentziak entrenatu eta testuinguru errealean aplikatzea dute helburu. Ikasleek, benetako protagonistek, erabakiak hartzen dituzte, inplementatzen dituzte eta ebaluatzen dituzte. Astean 13 orduetan taldeak eta ordutegiak biltzen ditugu. Lan egiteko modu honetan ikasleek autonomia pertsonalari, konpetentziei, askotariko adimenei, pentsatzeko errutina eta estrategiei, ebaluazioari, autorregulazioari... garrantzia ematen diegu. Beste mailetan proiektuak (euskara, orientazioa, STEAM, artistikoa, ondare kulturalak) egiten ditugu momentu konkretuetan.
- **Baliabide teknologikoen** erabilera bultzatzen dugu: 1x1 portatilen integrazioa, ikastetxeko irratia, aplikazio digitalak, Ikaslagun (Moodle) plataforma...
- **KIDE proiektua:** Ikastetxeko ongizatea eta elkarkidetzea sustatzeko programa dugu. Etapa honetan bi proiektu nabarmen ditzakegu: Ikasle laguntzaileak eta Cyberkide.
- **Aniztasun trataerari** erantzun egokia emateko prest:
 - ✓ Esku-hartze espezifikoko proiektuak (1. eta 2. mailetan)
 - ✓ Hezkuntza Bereziko bi irakasle
 - ✓ Norbanako kurrikulum-egokitzapenak
 - ✓ Aukerazko irakasgaien eskaintza zabala

- ✓ DBH bukatzean, Herrikiden jarraitzeko aukera, ikasleen beharrei eta egoerei egokituak dauden Batxilergoko ibilbide ezberdinetan.

3. Ikasle bakoitzari bere bidea egiten laguntzen

- Familia eta ikastetxearen arteko harremanak inoiz baino garrantzitsuagoak
- Maila guztietako tutoretza-plana
- Bizikidetzeta-plana eta emozioeko hezkuntza
- Gelako gurasoen bilerak
- Elkarrizketa pertsonalak (gurasoak, tutorea eta dagokion kasuetan ikaslea edota irakaslea)
- Eguneroko informazioa ezagutzeko aukera telefonoz edota interneten bidez (“Clickedu” komunikazio-tresna)
- Irakasleen arteko koordinazioa (mintegiak, maila berean ematen dutenak...)
- Aniztasun-trataerako ibilbide desberdinak (lehenago azalduta)
- Kulturartekotasunak dakarkigun aberastasuna
- Hezkidetzeta proiektua

4. Beste pertsonen errealitateak hurbiltzen

- **Elkartrukeak**: Frantziarekin DBH 4. eta Batxilergoko 1. mailan eta Poloniakoekin Batxilergoko 1. mailan.
- **Zaindarien Astea, Giza-Eskubideen Astea, Eguberri-kanpaina eta Elkartasun-kanpaina** (“Itaka-Eskolapioak” eta “Ayuda Solidaria Hijas de Jesús” Fundazioekin laguntzaz).
- Ikastetxera **hitzaldiak** ematera etortzen direnean eta beste errealitate ezagutzeko kanpora **bisitak** egitera joaten garenean.
- **Ikaskuntza eta Zerbitzua**. Proiektuak ditugu Herrikideko HH-LH-rekin, Uzturre zentroarekin, Goienetxe Fundazioarekin, Topic-ekin, Guritze Gorriarekin...

5. Eleaniztasuna bultzatzen

- **Euskara** ikasteko eta erabiltzeko makina bat proiektu eta ekimenetan parte hartzen dugu (Hizkuntza Normalkuntza Proiektua, Bai Euskarari, Euskaraldia, Euskara eguna...) eta titulu ofiziala ateratzeko aukera.
- **Ingelesaren** ezagupena eta erabilpena zabaltzeko:
 - ✓ Elkartrukeak

- ✓ Gai bat ingelesez emateko aukera
- ✓ DBH 2.etik aurrera Batxilergo Duala egiteko aukera
- DBH eta Batxilergoan **frantsesa** ikasteko aukera eta elkartrukea Batxilergoko 1. mailan.
- Eta hau guztia **gaztelania** ere menperatu behar dela ahaztu gabe.

6. Heziketa integrala eta kristau-humanismoan oinarrituak

- Heziketa balioetan: kanpainak, tutoretzak, erlijioeko klaseak...
- Goizeko hausnarketa
- Erlijioeko klaseak
- Fede-esperientziak
- Maila guztietan elkarbizitzak
- Mundu hobe baten aldeko konpromisoak
- Ikasgelako lanaz eta eskola-orduez haratago dagoen hezkuntza-proposamena: Kirikiño aisialdi taldea eta Kirol taldeak.

7. Eta hau dena, eskaintzen dugun eredia guregan gauzatuz

Azkenean zuen seme-alabek, gure ikasleok, bai zuengan bai guregan ikusten dutena beraiantzat garrantzitsuena izango da eta bide onetik goazela esan dezakegu:

- HERRIKIDEk proposatzen dituen ekintzetan denok parte hartzen badugu.
- Familia eta ikastetxearen arteko komunikazio arina badago eta bietan gauza bera esaten bada.
- Hezitzaileok proposatzen ditugun balioak gure bizitzan ere gauzatzen saiatzen bagara.
- HERRIKIDEk duen proiektu orokorrari, ahal den neurrian, bakoitzak berariazko ekarpena gehitzen badiogu.

III. Erreferentziarako pertsonak

- | | |
|-------------------------------------------------------|----------------------------|
| • Tutorea | • Orientatzailea |
| • Arloetako irakasle guztiak eta hezkuntza berezikoak | • Zuzendariak |
| • Idazkaria | • Entrenatzaileak |
| • Koordinatzaileak | • Aisialdiko begiraleak... |



San Blas auzoa 27 – Apdo. 117

20400 TOLOSA

Tfnoa: 943 67 03 11

herrikide12-18@herrikide.eus
